



## EUSKALTZAINDIA en ARANTZAZU

**"Arantzazutik mundu zabalera":** goiburu horrekin egin du Euskaltzaindiak Euskara Batuari buruzko Kongresua Arantzazun, urriaren 4tik 6ra bitartean. Hasi berria dugun ikasturte honetan bi urteburu ospatzen ditu Euskaltzaindiak: sortu zeneko 100 urte eta Euskara Batuaren oinarriak ipintzeko Kongresutik 50 urte. Arantzazun egin zuen Kongresu hori ere 1968an. Urtean barna egingo dituen jardunaldi akademiko guztietan nagusia izan da Arantzazukoa.

Hasierako ekitaldian, Andres Urrutia Euskaltzainburuak Kongresua aurkeztu eta ireki aurretik, beren hitzak esan zituzten Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburuak, Gipuzkoako Ahaldun nagusi Markel Olanok eta Mikel Biain Oñatiko alkateak; baita Laboral Kutxaren ordezkari Xabier Egibarrek ere. Denek ipini zuten oso agerian Arantzazuren lekukotza Euskaltzaindiaren ehun urte-

tan eta bereziki Euskara Batuaren ibilbidean. Santutegiko fraideen izenean Paulo Agirrebaltzategik eman zien ongietorria bertan bildutako guztiei, Euskaltzaindiaren eta Arantzazuren harremana nabarmenduz, sorreratik bertatik, eta hark santutegian egindako jardunaldi eta bilera garrantzizkoak gogoratu; azpimarratu zuen era berean L. Villasante Arantzazuko fraidearen gidaritza Euskara Batuaren hasierako bidean, Euskaltzainburu izan zen hemezortzi urteetan (1970-1988).

Gandiaga Topagunean antolatutako Kongresuak bere ekitaldiak. Euskaltzainekin eta Kataluniako, Galiziako eta Frisiako adituekin batera, Euskal Herriko 200 bat inguru lagunek, euskararen eta euskal kulturaren alorrean dihardutek, hartu zuten parte jardunaldietan.

Berrogeita hamar urteotan Euskara Batuak (euskararen estandarizazioak) egindako bi-



# “ARANTZAZUTIK MUNDU ZABALERA”

dea eta aurrerantzean egitekoa: horixe izan zen hiru egunetako gogoeta- eta eztabaida-gaien ardatza. Goizeko hitzaldiek (6 eta 7 eguneko), eta arratsaldeko sailkako komunikazioek (27 denetara) bete zituzten lehen bi egunak, benetan trinkoak. Hizkuntz alor eta lurralde bakoitzean Euskararen estandarizazio-bidean Euskaltzaindiak egindako urratsak azaldu zituzten, batetik; eta hezkuntzan, komunikabideetan, ingurune digitalean, lan-munduan, administrazioan, itzulpengintzan eta literaturan irekitako bidea, bestetik. Katalanaren, galizieraren eta frasieraren estandarizazio-ereduen ezalpenak tartekatuz zituzten.

Ostiralean bi aurkezpen berezi egin zituzten: Euskaltzaindiaren webgune berria eta aberastua (Andoni Sagarnak) eta *Euskara Batua-ren Gidaliburua* (Andres Alberdik). Iluntzean “Mende Berri kantuz-Arantzazu” kontzertu ederra basilikan, Bilboko Koral Elkartearen

*Euskeria Korua eta Donostiako Orfeoi Gaztea elkartuta*, Lauko Quartet tresna-taldearen laguntzaz. Asebeteta utzi zituzten Kongresuko eta bertaratutako beste entzuleak.

Azken egunean, larunbatean, Euskaltzaindiaren aurrerantzeko asmo eta proiektuak agertu zituzten Euskaltzainburuak. Azkenik, euskal gizarte eta herriari zuzenduriko Kongresuaren Adierazpena irakurri zuen Joan Mari Torrealdaiak (10 puntutan); eta 36 erakundek berretsi zuten bertan, beren sinadura ipiniz banan banan.

Kongresuko “famili argazkia” basilikaren aurrean egin ondoren, dorre nagusiaren babesean ahogozagarriren batzuk hartuz agurtu zuten elkar partaideek. Arantzazuko udazkeneko eguraldi eguzkitsu eta koloretsuaz gozatu ahal izan zuten hiru egunetan.

**Paulo Agirrebalzategi**

